

**Biolentzia matxistari
aurre egiteko mozioa
onartu du Udalak**

**Jontxuren argazkiak
biltzeko deia**

**Astebete falta da
Santo Tomas azokarako**

noaia



ttun gaitun ttun gaituk ttun

gattunk



Marije

Arropa denda

GOIEGI

Jatetxea- Restaurante



SANTA ZEZILIA dela eta...

GAU BEREZIA Goiegin,

Musikarekin jai giro bikaia!

(azaroaren 22an) erreserba ezazu!



KARTA-ASTEKO BEREZIA-MENU ADOSTUAK



943 36 14 04

www.goiegi.com Irubide bailara 1, LASARTE-ORIA

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Ihartzako lanak, amaituta

Hirigintza lan ezberdinetan murgildua dabil Usurbilgo Udala. Ihartzatik Arratzain aldera doan aldapan, ur hartune bat bada. Bertako lanak amaitu berri dituzte. “Ihartzeta eremuko bizilagunak aspalditik zeuden zain ur sarearekin zuten arazoa noiz konponduko zen. Izan ere, Kalezarretik Arratzain aldera doan aldapa horren inguruan kokatuta dauden etxebizitzak ur kontagailu amankomuna zuten. Egoera honek hainbat arazo sortzen zituen bizilagunengan, besteak beste, ur presio baxua izatea edota kontsumo zehatzak banatzeko aukerarik ez izatea. Udal brigada lanean aritu ondoren azken hilabete honetan, sarearen luzapen obrak bukatu dira jada”, Udaletik ohartarazi dutenez.



Ihartzatik Arratzain alderako aldapan aritu dira brigadakoak jo eta su lanean azken hilabetean.

Igerilekuak dituztenentzat, oharra

Etxe bakoitzean banakako kontagailuak jarri ondoren, “martxoaren 1ean lehen-go sare zaharra erabat ezabatu eta sare

berritik hornitzen hastea aurreikusten da. Eremu horretan dauden igerileku pribatuak ere egungo arautegira egokitu

beharko dira eta kontadore bereziak jarri beharko dituzte”, berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Laburrean

KOOPerutzen-en izen emateko epea, amaitzear

Eskualdeko jarduera ekonomikoa sustatzeko helburua duen zerbitzua da KOOPerutzen. Beharrezkoa den formazioa, jarraipen pertsonalizatua, proiektua garatzeko lantokia, iniziatiba ezberdinekin co-workingean aritzeko espazioak... eta hilean 250 euroko diru laguntza jasotzeko aukera. Izen emateko epea abenduaren 5an amaituko da. Inskripzio orriak kooperatzen.net atarian eskura daitezke.

Jubilatuaren ibilaldia eta babarrun jana

Zuzendaritza berritzeko hauteskunde betean den Gure Pakea Elkartek, ibilaldia eta babarrun jana antolatu ditu abenduaren 10erako.

■ 10:00 Ibilaldia frontoitik abiatuta: Usurbil, Santuenea, Lasarte, Oria eta Zubietak. 9 km.

■ 14:00 Babarrun jana Zubietako Barazar jate-txean. Prezioa: 20 euro. Izen emateko azken eguna, abenduaren 4a. Gehienez, 35 lagunentzako tokia. gurepakea@gmail.com / 943 368 770.

Abenduaren 10ean, gazte zein helduekin tailerra

Bizikidetza eta gazte lokalen inguruko parte-hartze prozesua amaitzear da.

Abenduaren 10ean izango da azken hitzordua. Tailerra antolatu dute gazte zein helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa egingo da bertan. Eta adostasunak lantzen segiko dute. 19:00etan Potxoenean. Udala ari da ekimen hau sustatzen, Elhuyarrekin elkarlanean.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noqua.com /// www.noqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubidea.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.com:

Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietak, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arana, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.


Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal Herreria!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Aritz Gorriti**

Isiltasun ozena

Aldizkaria inprentara bidean doan hone-tan argitaratu dira azaroko langabezia-datuak. Usurbilgo datuaren faltan, Gipuzkoan beherantz egin omen du lanik gabeko herri-tar kopuruak. Langabezia igo dela iragartzea baino berri hobe da hori noski. Hortik ordea, batzuk eta besteek egingo dituzten interpreta-zioak tankera ezberdinekoak izango dira ziur. Botila erdi hutsa edo erdi betea ikus-tea, norbere betaurrekoetatik antzematen duenaren arabe-rakoa izango da. Beti bezala.

Egoera ekonomikoa hobe-tzen doala saldu nahi duen-arentzat edozein domina baino hobeak dira zenbakiok. Baina dudarik gabe, langabezia da-tuok, zenbaki hutsak direla

irudituko zaionik ere bada nos-ki. Hemen, herrian bertan.

Galdetu bestela, ikasketak bukatu eta bere ogibidean lan bila ari eta lanik ez duenari. Beno, hobe esanda, ikasketak amaitu, eta berea ez den beste edozein ogibidetan xoxa ba-tzuk irabazteko beharra izan arren, lanik gabe jarraitzen duen gazteari. Beste ikasketa batzuei heldu beharrean aur-kitu denari. Kanpora lan bila, edo lanpostua ez galtzeko, dena utzi eta atzerrirako bi-dea hartu duenari. Ez gara oso urrunera joan behar, trantze horretan dagoen jendearekin topo egiteko. Halako egoeratan diren senide, lagun edo ezagu-nak gertu ditugu. Gazte nahiz heldu. Eguna pasa bai, baina etorkizuna ziurgabetasunez edo argi esan, beltz ikusten duten helduak ere badira. Es-

kupeko batekin hamarkada luzez beharrean aritu den lantegitik bota dituztenak.

Beno, eta gu geroni egoera horretan ez gauden artean, halako egoerak gertu ditu-gunean gaitzerdi. Gaitzerdi? Hala dirudi. Pribilegiatuen muga, landun-langabeen artean finkatzeraino heldu gara. Hainbat eskubide iza-teko gogor borrokatu behar izan zuten gure aurreko be-launaldiek entzungo baligu-te... Eskerrak halere, kasu askotan, herritarren inguru hurbila da, gertuko "sare soziala" egoeroi aurre egiten eta laguntzen ari dena, lehen ere nahikoak ez, eta murriz-ten doazen diru-laguntzekin batera.

Baina kezka eta sufrimendu egoerok etxeko lau hormen artean geratzen direla dirudi.

Badirudi pazientziaz gain, ha-lako egoerok jasateko gaitasun handia dugula. Oraindik ez dela heldu, benetan aski dela esateko unea. Bestela zaila da ulertzen, gertatzen ari direnen aurrean nabari den isiltasun ozena. Isil samarrean itxi dira gertu, hemen, zenbait lante-gi, langileen aurkako hainbat eta hainbat neurri hartu dira, EREak direla... Baina momen-tuz, astelehenak astelehen izaten jarraitzen du. Igandeak igande bezala. Dugun pano-rama aldatzerik ez dugula barnerarazi digute. Arma po-tenteena baliatu dute horre-tarako; beldurra. Baina ez genuke ahaztu behar nondik gatozen. Iraganak sarri asko-tan egin behar ez dena irakas-teko balio digun arren, badu-gu zer ikasia baita atzokotik, biharko.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

Zubietako Amiri-Etxetxo arteko bidea itxita

Asfaltatze lanak egiteko bi egunez itxiko dute bide zati hau, abendu hasiera honetan. Atzerapenik ez bada, datorren astean bertan egingo dituzte lanak. "Konpontze-ko eguraldi lehorra behar denez, lanen egutegi zehatza ezin dugu aurreratu. Edozein modutan, da-torren astean izango direla au-rreikusten dugu", ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik.

Herri Batzarrek eginiko eskaera aintzakotzat hartuz, Amiri-Etxe-txo arteko bidea zenbait guneetan hondatua dagoenez, konponketa lanak egingo dira. Asfaltia enpre-sak bideratuko ditu obra hauek. "Usurbilgo Udalak, egoera honek sortuko dituen eragozpenen berri eman nahi dizu, beti ere ulertuz, lanen emaitza guztien onurarako izango dela", adierazi dute.



Bi egunez itxiko dute bidea, asfaltatze lanak egiteko.

Euskararen Egunerako adierazpena, ahobatez onartua

Udalak herritarrek zorion-du eta euskara sustatze-ko konpromisoa berretsi nahi du. Mozioaren berri aurreko astekarian argita-ratu genuen. Mozioa aho batez onartu zuen udal-batzak.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

WHEEL AKADEMIA
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak
• Lehen eta Bigarren hezkuntza
• Batxilergoa • Selektibitatea
• Lanbide heziketa
• Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Biolentzia matxistari aurre egiteko mozioa, onartua

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako erakunde adierazpena onartu zuen Usurbilgo Udalak, gai honi loturiko egun seinatua, azaroaren 25ean egin zen osoko ohiko bilkuran. Aho batez onartu zuen udalbatzak, EHBildu, Usurbilgo Hamaikabat eta EAJ alderdien izenean aurkezturiko testua. Osoko bilkuran bertan, mozioarekin bat egin zuen baita, PSE-ko udal ordezkariak.

Udal konpromisoak

Osoko bilkuran onarturiko testuak, biolentzia matxistari aurre egiteko ezinbestekotzat jotzen du, "bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendartearen eraldaketa". Udalak zenbait konpromiso hartzen ditu:

■ Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoak indartuz.

■ Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.

■ Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.

■ Emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten



Erle Egunean elkarretaratzea egin zuten Eragile Feministako kideek.

gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderek in eta sare lana sustatuz, ahalduntze eskolak edo emakumeen etxe modukoak.

■ Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal guneak, aniztasun funtzionala dutenak...

Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Osoko bilkura burutu zen Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna berean, elkarretaratzea deitu zuen Usurbilgo Eragile Feministak, Mikel Laboa plazan. "Autodefentsa feministaz lehertu!" lelopean batu zen herritar talde bat.

Eragile Feministan parte hartzeko deia

Aurreko Erle Egunean frontoian "Autodefentsa feministaz lehertu!" lelopean frontoian egin dako elkarretaratze baten bueltan aurkeztu zuten bilguneko kideek, Usurbilgo Eragile Feminista. Taldetik parte hartzeko gonbita luzatu zuten. Baita manifestu bat irakurri ere. Usurbilgo Eragile Feministak azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, Bilgune Feministak plazaraturiko adierazpena hain zuzen. Bertan jasotzen denez, "feminismoaren bidean eta autodefentsa feministaz erantzuteko gure hautua berresten dugu. Beti bezain garrantzitsua da gure borroka, inoiz baino beharrezkoagoa".

Ondarroarako deia

Abenduaren 13an, "Jostorrazak dantzan ditugu! Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!" lelopean Ondarroan antolatu diren Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministetan parte hartzeko gonbita luzatzen dute. Euskal Herriaren burujabetza feministarantz jorratu beharreko bidean, "aurretik emandako hausnarketa eta lanari jarraipena emango diogu, eta modu kolektibo batean herri honetarako nahi dugun alternatiba eta trantsizio feministaren inguruko eztabaidari helduko diogu. Bertan elkartuko gara!".

Ika-Mika

Iruditxo moreei buruz...

NOAUA!n idaztea oraindik gure planen barnean ez bagenuen ere, aurreko asteko ika-mika atalean irakurritako testuak erantzuna merezi duela uste dugu. E.G. hizkien izenpean herritar batek frontoia berrituta oso ederra dagoela (hala da) eta bertan ezarritako "kartel" edo irudi moreak ikusita zur eta lur gelditu zela zioen, arduratuta ea frontoia hain eder zenbat iraungo zuen galdetzen zuen. Errespetua eskatzen zuen (zigu), besteak beste, Mikel Laboaren eskulturarekiko eta gure gauzak guk zaintzeko deia luzatzen zuen.

Gu ere zur eta lur gelditu gara aurreko asteko testu horrekin, zela sinpleenarekin ezarri baikenituen kartulina eta paperzeko irudi moreak, inongo momentuan gure

herriko forntoi maiteari edota eskulturari kalterik egin gabe, errespetatuz. Kola edo beste edozein itsasgarri erabil genezakeen, baina hori ere kontuan izan genuen. Beraz, gure ustez, gure gauzak zaindu ditugu.

Hala ere, esan nahi dugu, seinalerik onena irudi morerik (ez ezta besterik ere) jarri behar ez izatea litzatekeela; baina, zoritxarrez, arrazoiak ditugu horretarako. Oraindik asko dugu beste jendarte eredu bat, parekidea noski, lortu arte egiteko guztiok. Horren adibide garbia dugu aurreko asteko testua, izan ere, ez dugu ika-mikarik irakurri emakume izate hutsagatik emakumeak erahil edo bortxatu dituztenean, ezta horiek jazo aurretik sotilagoak diren erasoak egon direnean ere. Egoera

hauen aurrean isilik egoteak edo ez salatzeak indarkeriak bere horretan jarraitzea ahalbidetzen du eta elikatzen du.

Finean, nonbait iruditxo moreek begietan min eragin diote E.G. herritarri eta, antza, ez diote min berbera sortzen emakumeon aurkako indarkeria ezberdinek. Ulergaitza eta harrigarria. Baina tira, gure borroka benetan beharrezkoa dela erakusten duen beste adierazleetako bat baino besterik ez da hau eta horretan jarraituko dugu!

Besterik gabe, lerrotxo hauek aprobetxatuz, antolatu ditugun ekimenetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta hurrengoetara ere bertaratzeko deia luzatzen diegu. Aipatu beharra daukagu gure taldera batu

nahi duen emakume orok atearik zabal-zabalik dituela eta desiratzen gaudela, zeresana eta zeregina badugu eta!

Azkenik, ez dugu aipatu gabe utzi nahi testuak eragile feministaren sinadura badarama ere, ez dugula zer ezkutaturik, ezta lotsarik ere, nor garen aitortzeko: Aroa, Gara, zi, Ilazki, Irati, Irati, Josune, Jugatx, Leyre, Maddi, Maider, Nerea, Onintze, Uxue eta Zorione gara.

PD: Zergatik eragiten du "feminismo" hitzak hainbeste min begietan pertsona askez osaturiko jendarte parekidea esan nahi badu? FEMINISMOA EZ DA MATXISMOA AURKAKO NORANTZAN!!

Gora Borroka Feminista!!!

Usurbilgo Eragile Feminista

Astebete, Santo Tomas Azokarako

Hasi prestatzen base-rritar jantziak. Abenduaren 14an Usurbilen ospatuko dugun Santo Tomas azoka badator eta. Astebete baino ez da geratzen jada, arrakasta handia izan ohi duten babarrun eta sagardo lehiaketetan izen emateko. Abenduaren 10a azken eguna. 8 botila sagardo eta babarrun kilo batekin parte hartu eta sari ederrak irabaz ditzakezue herriko ekoizleek. Argibideak NOAUA!n edo 943 360 321 telefono zenbakian.

Lehiaketekin batera, zenbait sorpresa eta berrikuntza izango ditugu datorren Santo Tomas Azokan. Adi datorren asteko NOAUA!ri. Aurrerapen moduan, hona hemen eguneko ekitaldi eskaintza:

Abenduak 14, igandea

Goizean zehar, gerturatzen diren guztiek sagardoa eta babarruna dastatu ahal izango dute, txistorra eta taloaz lagunduta. Bazkide egiteko aukera izango dugu aur-



Sagardoa eta babarruna dastatzeko aukera izango da Santo Tomas azokan. Aurten abenduaren 14an ospatuko da Usurbilen.

ten ere. Animatu eta egin NOAUA!ko bazkide.

■ **11:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa Dema plazan.** “Eguna joan eta eguna etorri baserrian bizi denak badauka hamaika zeregin. Noizik eta behin ezustekoak ere izaten dira. Ba al dakizu zer gertatu zitzaion Martin artzai-

nari?”.

■ **12:00 Santo Tomaseko kan-tu-jira** Mikel Laboa plazatik abiatuta, Sohütako ikastolaren aldeko kanpainari bukaera emateko, Kli-k Itsasuko txar-rangarekin.

■ **13:00ak aldera, sagardo eta babarrun lehiaketako sari banaketa.**

■ **14:30 Herri bazkaria** Uda-rreri Ikastolako jangela berrian, Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren alde. Prezioa: 20 euro. 12 euro, 12 urtetik beherakoentzat. Txartelak: Txirribogan, Aitzagan eta Txirris-tran salgai. Txartela erosteko azken eguna: abenduaren 11 osteguna.

Inauterietako mozerroa erabakitzeko unea

Eguberrietara heldu baino lehen, inauterietan hitz egiten hasteko goizegi dela irudituko zaizue. Baina ez pentsa mozerro festarako hainbeste falta denik. Datorren urtekoa, otsailaren 14an ospatuko da. Prestaketa lanetarako denbora beharko denez, hobe gaia lehenbailehen erabakitzea. Eta zuk zertaz mozerrotu nahi zenuke 2015eko Inauteri Festan? Gaia hautatzea zuen esku.



Proposamenak elkarte@noaua.com helbidera bidali edo tabernetako orrietan ipini. Abenduaren 18ko bileran hartuko da erabakia.

Bidali zuen proposamenak elkarte@noaua.com helbidera, edo adi; zuen ekarpenak tabernetan ere jaso nahi ditugu eta. Ideiak

idatzeko orriak izango dituzue edaritegietan. Baita Santo Tomas azokan ere.

Abenduaren 18an, 18:30ean

Potxoenean egingo den bilera irekian aztertuko dira gaiak eta bertan hartuko da erabakia. Animatu eta mozerrotzeko gaia proposatu!

Euskarazko produktuak erosteko gida, kalean

Euskarazko Produktuen Katalogo berriaren 120.000 ale inguru banatuko dira Eguberriak bitartean. Kopuru horretatik hainbat ale, egunotan eskuratu ahaliko dira Usurbilen.

katalogoa.org

Gurasoentzako materiala, jostailuak, jokoak, liburuak, komikiak, aldizkariak, DVD filmak, musika... Ehunka erreferentzia aurki ditzakegu. Sarean ere topatuko dituzue, www.katalogoa.org atarian.

Jontxuren argazkiak biltzeko deia

Martxan dira, urtarri-laren 3an Jon Uribe omentzeko antolaketa lanak. Usurbilgo Gazte Asanbladak deituta igandean burutu zen lehen bilera. Herri-ugar ugar bertaratu zen. Zehazten hasiak dira lehen ekimenak. Adi, ziur zuetako batek baino gehiagok Jon Uribe gaztearekin ateratako argazkirik izango duela. Antolatzaileek Jontxuren irudi bilduma bat osatu nahi dute. Horretarako orde, herritarren laguntza eskatu dute. “Hasi ordenagailuko karpeta zaharrei eta argazki karretei errepasoa ematen!”, luzatu dute gonbita.

Omenaldia prestatzeko

bilera, abenduaren 14an

Argazkiak e-posta honetara bidali ditzakezue: jontxu.herriko.alkate@gmail.com helbidea. Omenaldia prestatzeko hurrengo bilera, abenduaren 14rako finkatu dute. Datorren astekarian, bilera ordu eta lekuaren berri.

Lenteja festa larunbatean

Usurbilgo Gaztetxea eraisteko arriskuan da, otsaila aldera botako dute. Horren harira ekimen sorta antolatu dute. Jon Uriberen omenaldiaz gain, “Kaosa lentejaz” jaialdia larunbatean; norberak egindako lenteja jana lehenik, eta kon-tzertuak gero. Lentejak prestatu nahi dituzuenok aurrez eman behar duzue izena Usurbilgo Gaztetxean, Zendoian, Aitzagan edo Irratin. “Lentejak, olio eta gatzak guk



Gazte Asanbladatik abiatu zen baina herritar talde bat ari da omenaldia bideratzen orain. Argazkiak bidaltzeko e-posta helbide bat zabaldu dute: jontxu.herriko.alkate@gmail.com

OMENALDIA PRESTATZEN

Antolatzaileek Jontxuren irudi bilduma bat osatu nahi dute eta herritarren laguntza eskatu dute. “Hasi ordenagailuko karpeta zaharrei eta argazki karretei errepasoa ematen!”

jarriko ditugu. Beste osagaiak eta eltzea bakoi-tzak berea jarri beharko ditu”, ohartarazi dute antolatzaileek. Hori bai, argi izan beharrekoa honakoa; “bartzariak beganoa izan behar du”.

Bazkarira joateko ez dago izena eman beharrik, edonor joan liteke. Borondatearen truke, lentejak jateko eta edateko sagardoa izango da. “Anima zaitez!”, luzatu dute gonbita Gaztetxetik.

Abenduak 6, larunbata

“Kaosa lentejaz” jaialdia:

12:00 Prestakuntza.

14:00 Herri bazkaria frontoian: dilista dastatzea, borondatearen truke.

18:00 Kontzertuak Gaztetxean: Venganza (Zaragoza), Piñen (Bartzelona), Total Arse (Zarautz), Ernía (Zarautz), Infekzioa (Bartzelona-Usurbil), Hondartzako Hondakinak (Iparraldea), Endemaño (Bizkaia), Octopussys (Bizkaia), Segurrata (Zaragoza). Sarrera: 5 euro.



Larunbateko kontzertuan Endemaño taldekoak arituko dira. Argazkia: Emarock.

“Haria ez dadila eten”

Abenduak 11, osteguna

20:30 Afari beganoa, borondatearen truke.

Abenduak 13, larunbata

Mendi irteera eta hamaiketakoa, Gazte Asanbladak eta Andatza M.K.T.-k antolatua elkarlanean.

Abenduak 14, igandea

Jontxuren omenaldia prestatzeko bilera.

Abenduan zehar

Haur eta gaztetxoei zuzenduriko ekimenak.

Urtarrilak 3, larunbata

Jon Uribe gure artetik joan zeneko lehen urteurrena; Jontxuren aldeko omenaldi eguna.

**Zuen
publizitatea
hemen**

943 360 321
publizitatea@noaua.com


**ARRANDEGIA
PELLO**

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725


Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Ezti-egileen egun ederrena

Ezti-egile, erlezain eta sektoreko adituentzat egun seinalatua da azaroko azken igandekoa. Baita aditu (edota aritu) ez den jendearentzat ere. Jendea asko batu delako aurtengo edizioan. Usurbilgo Erle Egunak sustrai erroak dituen seinale. Ezti eta gozoa erosteko hainbat postu zeuden Dema-plazan ipiniak, eta jende asko ibili zen, batzuk zokomiran, besteak erosten. Stand batean zeuden Udarregiko ikastolako DBHko ikasleak. Korrikako postua eta ta-lo-egileak ere batu ziren Erle Egunaren festara.

Ikusteko eta ikasteko tarterik ere izan zen. Julian Urkiolak dastaketa bat gidatu zuen frontoian. Lagun asko izan zituen, adi, eztiari buruz eman zituen xehetasunei erreparatzen.

Eguerdian iritsi zen une ikusgarriena, erle batek sarituentzako txapelak ekarri zituenean. Elizatik frontoirako bidea osatu zuen, txiki-en gozamenerako. Eta segidan hasi zen sari banaketa.

■ Ezti iluna

Alejandra Gomez (Donamaria)
Iñigo Erauskin (Berrobi)



Erle batek ekarri zituen txapelak, elizatik frontoira. QR kodearen bitartez ikus dezakezue bideoan.

■ Ezti argia

Markos Pagola (Ereñozu)
Federico Villafranca (Iruñea)

■ Gozogintza

Sara Caballero
Maite Urkiola

■ Mila-lore

Anastasio Mujika (Legazpi)
Celedonio Askasibar (Zarautz)

Amaieran, Erle Egunera hurbildu zirenen artean zozketatu zituzten hiru ezti-pote sari-tuak. Josu Aranberri izan zen zorionekoa.

Kizki lagunak badira

Eta ez gutxi. Erle Egunean, ia 200 lagunek sagarrak biltzeko tartea atera zuten. Sutegi ataria, sagar biltzetarako gunea izan zen igandean. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek Goldean Elkar-tekoekin batera, herritarrak argazki erraldoi baterako hitzartuak zituzten; usurbildarrak, 2009az geroztik eskualde mailan herriz herri ospatzen ari den ekimenean parte hartzeko deituak zeuden. Ahal bezain beste kizki lagun bildu nahi zituzten. 440 behar ziren orain arte zegoen marka hausteko. Ez zen lortu. Halere, giro ederrean ospatu zen, sagardoa ekoizteko prozesua ezagutzera eman eta sagardogintza sustatzea helburu zuen ekimena.



Sutegi aurreko plazatzon batu ziren kizki lagunak. QR kodearen bitartez ikus dezakezue bideoan.

Otar-Goxo
Elkideak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

zuri arrain
iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarainiturgintza@gmail.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Ezin herrikoia goa eta zinez hunkigarria

L arunbatekoaren ostean, ez dago zalantzarik, leloak dioen moduan usurbildarrak onenak "gattunk!". Ezin besterik esan, #Kilometroak15 ekimena aurkezteko Oiaro Kiroldogian azaroaren 29an ospaturiko ikuskizunaz.

Leloa, irudia, arropa eta bes-telako zehaztasunak ezagutze-ko ekitaldiak bi datu aipagarri utzi zizkigun; batetik, Kiroldogira gerturaturiko jendetza. Ehunka lagun. Arrakastatsua dudarik gabe. Eta bigarrenik; ez zen nolanahikoa izan, ikuskizun honek sustatu duen parte hartzea. 222 usurbildar aritu ziren, kantuan, koplata, txalaparta jotzen, dantzan, auzolanean, eskaini ziren proiektioetan, Jose Luis Zumeta artista handiarekin zuzenean



NOAUA!ren web orrian argazki ugari topatuko dituzue. QR kodearen bitartez ikus ditzakezue.

margo lanean... Usurbilgo eta usurbildarren nortasuna agerian geratu zen.

Helduak, gazteak, haurrak, ikasleak, irakasleak... Herri oso baten agertokia izan zen Kiroldo-

gia. Herriatik sortua, azken hilabete hauetan mimo handiz landua, herriari eskainitako ikuskizun eder askoz gozatu ahal izan genuen. Hunkigarria benetan. Harrera beroa izan zuen publi-

koaren artean. Txalo zaparradak entzun besterik ez zeuden.

Sarritan, hitzak baino irudiak askoz adierazgarriagoak direnez, hona hemen ikuskizuneko argazki sorta bat:



Auzolanean, eta kantuan, herritar talde bat.



Abesbatzak eman zion hasiera ekitaldiari.



Argazkian ageri direnak Zumetarekin batera aritu ziren margotzen.



Ikasleak kantari, Jaione Eskudero irakaslearen gidaritzapean.

Kilometroetan gattunk!

A ireratu dira ondoen gordeak zeuden sekretuak; badugu Kilometroak 15 ekimeneko leloa eta irudia. "Gattunk!" duzue, datorren urtean Usurbilen ospatuko den ikastolen aldeko jaialdirako leloa. Erakargarria, herrikoa, gertukoa, talde izaera nabarmen-tzen duena eta parekidea, leloaren amaierako n eta k hizkiek adierazten duten moduan. Hauxe, datorren urtebete honetan, sarri ahotan erabiliko dugun hitza. Usurbildarrak jada, Kilometroetan "Gattunk!"



Kilometroak15 ospakizuneko lema eta logotipoa aurkeztu zituzten pasa den larunbatean. QR kodearen bitartez bideoa ikus dezakezue.

Sortzaileak, etxeokak

Etxean, etxeokak sortua da "Gattunk!"; Lur Etxeberria eta Intza Salsamendiren sormen lanaren emaitza. Urte hasieran Kilometroak 15eko irudi eta leloa proposatzeko herri-tarrei egin zitzairen deialdi irekian parte hartu zuten Etxeberriak, Salsamendik eta baita euren lagun taldeak ere. "Koadrilan egindako zerbait izan da. Koadrilan bildu ginen arratsalde batean, eta Kilometroe-

tarako leloa eta irudia proposatzea erabaki genuen. Etxera joan eta ideiak biltzen hasita, gau horretarako leloa argi genuen eta hurrengo egunerako irudia. Dena oso azkar joan da", zioen Lur Etxeberriak, Kilometroak 15 ekimena aurkezteko, antolatzaileek aurreko larunbatean Udarregi Ikastolako eraikin berrian egin zuten agerraldian.

Txalaparta hotsa

"Gattunk!" hitzak badu bere sonoritatea ere, leloak eta irudiak berak, "txalapartaren onomatopeia ekartzen digu gogora", egileen esanetan. Iragan ez oso urrunean galtzeko zorian izan genuen musika instrumentua, gerora indar hartu duena. Txalapartaren eta euskararen arteko paralelismoa

egiten zuen Lur Etxeberriak: "Txalaparta Euskal Herrian 60. hamarkadan galtzeko zorian zegoen instrumentu bat zen. Usurbil eta inguruko herrietan mantentzea lortu zen. Pixkanaka indar hartuz joan zen eta gaur egun Euskal Herri osoan oso zabalduta dagoen musika instrumentua da. Euskararekin ere ahalegin horretan ari gara, oraina eta geroa ere izan dezan".

Txalapartak gainera, jaia, erritmoa, sormena edo inprobisazioarekin duen lotura nabarmendu zuten sortzaileek, eta horren harira aipatzen zutenez, "hori da Usurbilen egin nahi den Kilometroak".

Kilometroak.net,

web orria ere martxan

#Kilometroak15 ekimenari loturiko albisteak, ekitaldien agenda edota blogariak izango ditu, atari berriak. Webgunea edukiz hornitzen hasiak dira jada.

Xabier Alustiza: "2015eko urriaren 4an Usurbilen izango gattunk!"



adierazi zuen ekimeneko leloa ahotan hartuta.

Kilometroak jaiak, ikastolen jaia izanda ere, "ikastolaren eremua gainditu eta herri osoa zipiritzindu ohi du. Zer esanik ez Usurbilen, Udarregi Ikastola herriko eskola bakarra izanik, gurean zipiritzin horiek uholde bihurtuko dira. Izan ere, uholde baten indarrak ekin diogu Kilometroak urteari".

Urtean zehar egingo diren ekimenetarako, baina batez ere 2015eko urriaren 4an Usurbila etortzeko gonbita luzatu zuen Xabier Alustiza Udarregi Ikastolako lehendakariak. "Gipuzkoar guztiei, euskaltzale guztiei, eskatuko dizuegu, tartetxo bat egiteko zuen agendan. 2015eko urriaren 4an Usurbilen espero zaituztegu. Hemen izango gattunk!",

Oriotarren eskutik jaso du Usurbilek lekukoa. "Aurreko urteetan Kilometroak antolatu zutenen lana gure esku izateak asko laguntzen digu. Milesker aurreko urteetan antolatu zuten guztiei. Nabarmendu nahi genuke, Orioko Ikastolak eskaini digun laguntza. Beren esperientzia oso lagungarria izan zaigu eta izango zaigu", zioen Alustizak.

Arantza Manterola, Kilometroak K.E.-ko lehendakaria: "Zorte on!"



Urtea luzea da, baina helburuak garrantzitsuak dira. Indarrak neurtu baina ekin lanari. Zorte on!", opa die usurbildarrei. Kilometroak 14 antolatzeko oriotarrek eginiko lana eskertu nahi izan zuen baita.

Denda zabalik

Produktu eskaintza zabala aurki dezakegu jada zabalik dagoen #Kilometroak15 ekimeneko saltokian. Saltokia benetan ederra geratu da, herritar talde batek azken hilabete hauetan gogor jardun ondoren.

■ Astelehenetik ostiralera:

10:30-13:00 eta 17:00-20:00.

Oharra: astelehen goizetan itxita.

■ Larunbatetan: 10:30-13:00.

■ Lekua: Zubiaurrenea 3.

Zorte ona, lanerako deia eta aholku bana eman nahi izan zien usurbildarrei, aurreko urteetako edizioak gertutik ezagutzen dituen Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakari Arantza Manterolak, azaroaren 29an Kilometroak 15 ekimenaren aurkezpen ekitaldian. "Usurbili zer esan? Oriotarrek adina egitea, eta beraien emaitzak gutxienek lortzea.

Mertxe Aizpurua: "Usurbilgo herria kohesionatuko da"



heinean, onura handia ekarriko dio Usurbili".

Dagoeneko agertzen ari diren hainbat balore nabarmendu nahi izan zituen alkateak. "Lana eta esfortzua, ilusioa, irudimena dantzan jarri da ikusten denez. Konpromisoa eta auzolaneko baloreak landuko dira. Gaur ia ezagutzen ez diren pertsonen arteko harremanak sustatzeko baliogarria izango da. Iritzi trukaketa, erronkari aurre egiteko grina eta abar luze bat".

"Euskaraz hezitzearen aldeko apustua ere babesten ari gara"

Ikuspuntu guztietatik onuragarria, positiboa eta "gertakizun handia guztiontzat". Herritar nahiz herriarentzat. 2015ean biziko dugun Kilometroen metro eta zentimetro bakoitza, ahaztezina izango dela zioen Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkateak, azaroaren 29ko aurkezpen ekitaldian: "izugarritzko lana, denbora eta indarra dago eta guzti horren emaitza izaten dira gertakizun hauek. Gainera sentimenduarekin lotura handia duten gertakizunak izaten dira. Gertakizun handia den

Gainera, herri senari eusteko oinarri sendo bat suposatuko du. Herria eta euskara lotu dituen ikastola gabe ezingo genuke gaurko Usurbil ulertu, alkatearen esanetan: "Gaurko Usurbil ezin dugu ulertu ikastolatik at. Ikastolak, herriak eta euskarak, hiru erpinetako triangeluak osatzen du Usurbil. Hiru erpin horiek bata bestearen osagarri dira".

Mariaje Imaz: "Ikastolaren hasierako ilusio berberera hurbildu gaitu"



Bi helburu nagusi izango ditu Kilometroak 15 ekimenak. "Udarregi Ikastolako eraikin berriaren finantzaketa eta eraikin honetan lantzen den hezkuntza proiektu pedagogikoa ezagutzera eman eta sakontzea". Azpiegituri dagokionez, aipatu moduan, eraikin berria ordaindu eta bertan duten frontoia estaltzeko laguntza bildu nahi dute.

Helburuok betetzeko, auzolana izango da Kilometroak urteko zutabe nagusia. Ikastolaren sorreran bezala. "Prestaketa honek hurbildu

gaitu ikastolaren hasiera hartan egon zen ilusio berberera. Auzolana esaten dugunean, dioguna da, herriko gazte, zahar, ikasle, irakasle, guraso, ikasle ohi, emakume, gizon, guztiak nahi ditugula festa honen prestaketan. Horrela lortuko ditugu bi helburu nagusiak". Jada ehunka herritar animatu dira, 500 bat behintzat bai, eta gainerakoak ere parte hartzera animatzen dituzte. Martxan diren antolaketa lanei dagokionez, berrikuntzak izango direla dio Imazek, "bai parrakidetasunari, jasangarritasunari eta inklusibitateari dagokionean".

Gure Zozketa

Laster martxan jarriko den diru biketarako ekimen garrantzitsu baten berri eman zuen ikastolako zuzen-dariak. "Gure Zozketa" errifan salmenta. "Orion martxan jarri zutena. 60.000 euroko saria du. Ea guztion artean, auzolanean, gureganatzea eraikin hori".

**GAZTE-LOKALAK
ETA BIZIKIDETZA
partaidetzazko prozesua**

*Abenduak 10, astezkena
19:00tan POTXOENEAN*

tailerrak

Usurbilgo Udala



ORAIN... OINETAKOAK ALKARTASUNAN



KIROLA EGITEKOAK, MENDIKOAK, ETXEKOAK...



Alkartasuna kooperatiba • Atallu industrialdea 26, USURBIL Tel: 943 361 114 • e-maila: alkartasuna@usurbil.com

Abenduaren 14an, **SantoTomas** azoka Har ezazu parte **babarrun** eta **sagardo** lehiaketan



Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du.
Sagardo lehiaketan, aldiz, zortzi botila.




Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten
babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

Izena emateko datak:

azaroaren 26tik abenduaren 10era (biak barne).

Informazio gehiago: 943 360 321



EAJ-PNV: "Bilduk bere proposamenean atzera egin eta gure garapen agentziarekin bat egitea espero dugu"

Buruntzaldeko EAJ-PNVren ordezkariak agerraldia egin zuten aurreko astean Urnietan, "ezker abertzalea bailaran sortzen ari den garapen agentziaren aurkako iritzia azaltzeko".

Duela hilabete Lasarte-Orian egin zuten bezala, EAJren ordezkariak Bilduren proposamena zergatik babesten ez duten argitu nahi izan dute. Euren ustez, Bilduk diseinutako proposamena legez kanpoko da eta ez ditu berme legal eta juridikoak betetzen. Gainera, "sektarioa eta presazko proposamena ere bada" gaineratu dute.

Hauek dira EAJ alderdiak, aurreko astean eskaini zuen agerraldian eman dituen argudio nagusiak, laburbildurik:

■ Legez kanpokoak: Bilduk elkarrekin pribatua sortzea proposatzen du Udalen zenbait eskumen kudeatzeko. EAJk formula publiko baten alde egiten du, mankomunitatea eta partzuergoa, esaterako.



Aurreko astean egin zuten agerraldian Usurbilgo zinegotziak ere hartu zuen parte.

■ Arlo juridikoa: Giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeko bermea daukan egitura juridiko-ekonomikoa diseinatu behar dira. Ezker abertzaleak elkartearen alde egiten du hau kontrola saihesteko.

■ Langileak: Ezker abertzaleak gerentea eta beste zenbait langile kontratatzea proposatzen du eta horrek gastuak handitzea eragingo luke. EAJk udaletako langile funtzionarioekin lan egitea proposatzen du, esperientzia handia daukatelako eta

gastuak merkatzea ahalbidetuko lukeelako.

■ Memoria: Ezker abertzalearen proposamenak ez dauka atxikita beharko lukeen memoriarik. Ez da proiektuaren zehaztasunik ematen, ezta analisi sakonik egiten.

■ Izendapenak: Izendapenak egiteko garaian, ezker abertzaleak gehiengo emango liokeen formula proposatzen du. EAJk izendapenak Udal Batzetan erabakitzearen alde egiten du, herri bakoitzak bere ordezkariak era askean aukeratu ahal

izateko.

■ Kontrako txostenak: Buruntzaldeko herri batzuetako kontu hartzaileek eta idazkariak Bilduk proposatzen duen agentziaren aurkako txostenak egin dituzte. Proiektuak berme juridiko nahikorik ez duela iritzi dute.

■ Erakundearen aurkako iritzia: EAJren ildo beretik, zenbait eragile ekonomiko zalantzak adierazi dituzte ezker abertzalearen proposamenarekiko. Formula juridikoaren inguruan eta agentziak egingo lituzkeen jardueren inguruan oinarritzen dira, batik bat, zalantza horiek.

EAJko kideek ezker abertzaleari eskatu diote "utz ditzala alderdikiak alde batera eta lehenetsi ditzala Buruntzaldeko herritarren interesak. Ezker abertzaleari eskatzen diogu utz ditzala alde batera presak eta ekin diezaiola lanari gainerako alderdiekin batera. EAJtik borondate osoa adierazi nahi dugu gai honen inguruan lanean jarraitzeko, ziur baikaude garapen agentzia on batek onura ekarriko diola bailara osoari".

Beterriko Garapenerako Elkartea eratzea onartu du udalbatzak

EH Bilduren babesarekin eta oposizio osoa, PSE, EAJ eta Hamaikabatek aurka zutela onartu ziren memoria eta estatutuak, azaroaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Modu honetan, gobernu taldetik gogorarazten zenez, orain arte gai honetan halako agentziarik ez izateak eragiten zituen hainbat zailtasun administratibo gaindituko dira, etorriko diren proiektuen "kudeaketa egoki eta arinago" bat ekarriko du. Gipuzkoa mailan garapen agentziarik ez duen eskualde bakarra

izateari utziko dio bailarak.

Behin elkartea eratuta, "lortu nahi diren helburuak egikaritzeko administrazio publikoko egitura egokiena zein izan daitekeen aztertze konpromisua" hartu zuen udalbatzak. Oposizioak aho batez, proposamenaren aurka bozkatu zuen. Hamaikabatek, abstenitzeko asmoa bazuten ere, azkenean aurka bozkatuko zutela iragarri zuten. "Gure apustua, ente publiko bat eratzea da", zioen Josune Urkiak. Ildo beretik mintzatu zen Jo-

sune Urkola (EAJ). Onartzeraz zihozten memoria eta estatutuak "entitate publiko bat izango denik ez du bermatzen". Gainerako udalerrietako txostenek aldekoak beharko luketen arren, ez dela halakorik gertatu gaineratu zuen. Ricardo Crespoen ustez (PSE), "forma juridikoa ez da onena. Entitate publiko bat behar luke, berme juridiko gehiago dituelako".

Beterriko Garapenerako Elkartea

■ Kideak: Astigarraga, Hernani, La-

sarte-Oria, Urnieta, Usurbilgo udalak.

■ Helburuak: Beterriko sustapen eta garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta bertako biztanleen ongizatea bermatzeko jarduerak abian jartzea.

■ Ordezkaritza: Astigarragak %9,16, Hernanik %35,38, Lasartek %32,81, Urnietak %11,48, Usurbilek %11,17.

■ Finantziarioa: Udal Foru Funtzaren arabera.

■ Elkartearen gehieneko dimentsio-namendua: gerente bat eta Hernaniko udalerrian egoitza soziala.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

TAXI
24 h
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

Langileak behar dituzte Gabonetako Haur Parkerako

Aurten ohi baino beranduago, urtarrilaren 2tik 4ra Udalak Oiar-do Kiroldegian antolatu duen Gabonetako Haur Parkerako langileak behar dituzte. Interesdunek, jolastoki erraldoia kudeatuko duen Keima enpresara bideratu ditzakete kurrikulumak, abenduaren 19a baino lehen. Helbide honetara: keima@sartu.org



Kurrikulumak abenduaren 19a baino lehen bidali behar dira.

Lan deialdian parte hartzeko ezinbestekoa izango da begirale titulua izatea eta baita EGA edo baliokidea den titulua. Egin beharreko lana? Argi denez, Gabonetako Parkean 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoekin lanean aritzea hiru egunez. Gune ezberdinez osatuko da, eguberrietako oporretan Kiroldegia aisialdi eremu bihurtuko

duen jolastokia. Dinamizatzeko eskenatokia, jazz dance, esperimentuak egiteko zientziaren karpa, berrerabilera eta birziklapena sustatzeko tailerra, makillatzen ikastekoa, 2-6 urte artekoentzako ludoteka, puzzleak...

Guztia, haur eta gaztetxoek primeran pasatzeko.

Jolastoki erraldoia Kiroldegian

■ Noiz: urtarrilaren 2tik urtarrilaren 4ra.

■ Orduetgia: 11:30-13:30, 17:00-20:00.

■ Tokia: Oiar-do Kiroldegia.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Eskubaloia Kiroldegian

Abenduak 5, ostirala

18:00 Eibarko Ipurua Kiroldegian: Jubenil neskak:

Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia

Abenduak 6, larunbata

11:00 Alebin neskak:

Udarregi 5A-Udarregi 6A

11:00 Alebin neskak:

Udarregi 5B-Udarregi 6C

12:30 Usurbil K.E.-ko taldeen argazkia.

Abenduak 7, igandea

9:45 Autobus zerbitzua Loiura, seniorren 1. Nazional mailako partida ikustera.

12:30 Senior mutilak, Loium

1. nazional mailako taldea:

Urdaneta-Ucin Aluminio Usurbil

Bi haur parke eraberrituko ditu aurten bertan Udalak



Laster hasiko dira Kaleazar eta Txaramuntoko parkeak berritzeko lanak.

Urtea amaitu baino lehen egingo dituzte lanak. Hona, Udaletik jakinarazi dituzten zehaztasunak:

Kaleazarko haur parkea

■ Egingo diren lanak: "segurtasuneko zorua jarriko da, joko batzuk konpondu eta berriitu egingo dira eta beste batzuk kendu eta berriengatik ordezkaturiko dira".

■ Aurrekontua: 7.812,12 euro.

■ Lan hauetaz arduratuko den enpresa: Benito Urban.

Txaramuntoko haur parkea

■ Egingo diren lanak: "segurtasuneko zorua jarri, joko batzuk konpondu eta beste batzuk berriengatik ordezkaturiko dira".

■ Aurrekontua: 5.876,67 euro.

■ Lan hauetaz arduratuko den enpresa: Benito Urban.

Usurbil FT taldeko beterranoek triangularra jokatu dute Orion



Irudian duzue Usurbil FT-ko beterrano taldea. Astero biltzen da Haranen lagun artean futboleko aritzeko. Larunbat honetan, abenduaren 6an, Orioko Mendibeltz Zelaian antolatu den Orioko beterranoen triangularrean lehiatuko dira, Orioko F.T. eta Real Sociedad taldekoekin batera. Ikustekoa izango da.

Abenduak 6, larunbata

16:30 Orioko F.T.-Usurbil F.T.

17:30 Usurbil F.T.-Real Sociedad

18:30 Real Sociedad-Orioko F.T.

Usurbil Kirol Elkartearen taldeko argazkia

Larunbat honetan aterako dute eskubaloia taldeetako jokalariei, entrenatzaile, delegatu eta zuzendaritzako kideek, elkarteko denboraldiko argazkia. Eguerdiko 12:30etan Oiar-do Kiroldegian. "Jokalariek jokatzeko arroparekin azaldu (kamiseta eta galtza ofizialak) eta entrenatzaile, delegatu eta zuzendaritza-kideak polo beltzarekin", ohartarazi dute Usurbil K.E.-tik.

Kadete eta nagusi mailako pilotariak, txapelkun Gipuzkoan



Aurreko astean "familia argazkia" atera zuten pilota elkarteak kideak.

Garaipen bikoitza asteburuan, usurbildar pilotarientzat. Oiarzunen, Gipuzkoako Txapelketan, Nagusien mailan, garaile amaitu dute Xabier Santxok eta Aitor Gorrotxategik. Lehen mailako kadeteen artean, Gipuzkoako Txapelketan ere Usurbil nagusi; Aitor Aranguren eta Hodei Exposito herrialde mailako txapelkunak ditugu. Zorionak!

Usurbil, Euskal Herriko klubaren arteko lehen txapelketa nazionalen

Zortzi pilota elkarte lehiatuko dira Amezketan antolatutako Euskal Herriko klubaren arteko lehen txapelketan. Antolatzaileek zortzi elkarte gonbidatu dituzte, ekimen berri honetan parte hartzera; usurbildarrak tartean. Hurrengo urteetan aldiz, izen ematea irekia izatea nahi dute antolatzaileek. Euskal Herriko edozein elkarte inskribatu ahalko da.

Aurten, nagusien mailan dabilen kirolariak parte hartuko dute soilik, nazio mailako kirol ekimen honetan. 3 arlotan lehiatuko dira:

- 1- 4 1/2ra, 18 tantora.
 - 2-Eskuz banaka pilotaleku osoan, 18 tantotara.
 - 3-Binaka, 22 tantotara.
- Txapelketa abenduaren 14an abiatuko da.

Hilaren 28ra arte, kanporaketa saioak jokatuko dituzte. "Kanporaketa gainditzeko hiru partidetatik bi irabazi beharko dira. Txapelketako 3. izango da final erdian txapelkunaren aurka jokatu eta galtzen duen kluba. Txapelketako 4. izango da, final erdian azpi txapelkunaren aurka jokatu eta galtzen duen kluba", ohartarazi dute antolatzaileek.

Parte hartuko duten elkarteak

Zaramaga (Gasteiz), Adiskide (Galdakao), Iparralde, Huarte, Bortzirriak (Bera), Zazpi-Iturri (Amezketan), Aurrera-Saiaz (Tolosa) eta Usurbil.

Usurbilgo taldea

Xabier Santxo, Xabier Urbietan, Ander Quina, Aitor Gorrotxategi, Asier Arruti, Iñigo Altuna, Mikel Eola, Xabier Errasti, Haritz Lertxundi, Asier Katalina.

Neurketen jokalekua

Amezketako Larrunarri pilotalekua.

Neurketen egutegia

Abenduak 14, igandea: Huarte-Aurrera Saiaz
Abenduak 20, larunbata: Zaramaga-Usurbil
Abenduak 21, igandea: Adiskide-Zazpi Iturri
Abenduak 28, igandea: Bortzirriak-Iparralde

Autobus zerbitzua Loiura, Usurbil KE animatzera

joateko

Usurbil Kirol Elkarteko lehen nazional mailako senior mutilen taldeak, Loiura jokatuko du igandean, abenduaren 7an, eguerdiko 12:30etan, Urdaneta taldearen aurka. Partida hau ikustera joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbil Kirol Elkartek. Abenduaren 7an, goizeko 9:45etan irtengo da autobusa Usurbildik. Prezioak; Usurbil K.E.-ko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek doan. Bazkide ez direnek 5 euro. Izen emateko: 627 271 215 (Montse) edo usurbilke@gmail.com.

Eskubaloiko errifa zozketa

Bruño etxeko mariskada eder bat zegoen jokoan. 4.671 zenbakidun errifaren jabeari egokitu zaio mariskada.

Eskubaloia, Euskal Selektzioa

Usurbil Kirol Elkarteko lau kide deitu dituzte, Euskal Selektzioak asteburuan egingo dituen kontzentrazio saio hauei:

Abenduak 6-7, Derio.

Abenduak 8, Elgoibar.

Kadete nesken kontzentrazioa: Estitxu Berasategi Eizagirre, Ane Irazabal Esnaola.

Abenduak 6-7, Derio.

Jubenil nesken kontzentrazioa: Ane Encina Alvarez, Leire Furundarena Padrones.

Futbola Haranen

Abenduak 5, ostirala

19:30 Jubenilak:
Usurbil F.T.-Antzuola K.E.

Abenduak 6, larunbata

11:00 Jubenilak:
Usurbil F.T.-Euskalduna S.D.

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Josue Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Adosatu bat egiteko famili bat behar da Usurbilen. mareniria@gmail.com

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekia, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratz 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 230.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailuak. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukaldea. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatuko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilaletako fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilaletako fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra utzeko izango litzateke. 645720571

Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusia 22an. 20 m. 618 860 270

Honda Accord, 1.600 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, mailetero handia eta aire egokitua.

2 marra dituen, aparkalekuak alokatu nahi ditut. Kale Nagusiarren hasieran. Bizkarre auzoan. 70 euro hilabetea. 696 014 585.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Ollarondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduko edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papalak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak

edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informe onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, fillosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papalekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako

edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papalak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu internan joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo



Zorionak Uxue!
Igandean 7 urte bete zenituen.

Marrubizko mu-xuak maite zaitugun guztion alde-tik!



Zorionak Axier!!! Abenduaren 4an zure 7. urtebetetzea! Familia eta lagunen partez zorionak. Egun eta urte zoragarri bat izatea espero dugu. Maite zaitugu "bitxarrako".

Heriotzak

Josefa Mendizabal Arregi
88 urterekin hil zen,
azaroaren 25ean Zubietan



Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: astelehena, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaia.com

garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxiller-goan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurrepegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Telefono zenbakia: 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponitzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo

nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldarian, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak.

Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. Telefonoa: 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

BESTELAKOAK

Atxegaldeko Erdiko kalean katu bat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxo da. Norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Kafetegi bateko material guztia salgai. 7 urte, diseinuko materiala eta kalitate handiko makinak. Fakturaren %50eko deskontuarekin. 607491079. Agustina.

Denborarik ez baduzu zure maketa paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943362072.

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. euro 1 kiloa. Bitartekariak gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djarra@usurbil.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kaleazar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Abenduak 04 - abenduak 14

Osteguna 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 05 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 07 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 09 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Asteazkena 10 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ AIZPURI ODRIOLAZA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

Agenda abendua

6 larunbata

■ **Kaosa lentejaz jaialdia** Usurbilgo gazte-txean. Egun osoz.

7 igandea

■ **Tipi-Tapa**, sarien zozketa eguerdiko 15:00etan Artzabalen.


■ **"Luke eta Lucy"**, haurrentzat zinea euskaraz. 17:00etan Sutegin. Sarrera 3 euro.

8 astelehena

■ **Usurbilgo Odol Emailleen Eguna.** Bazkaria Antxeta jatetxean (izen ematea abenduaren 2an amaitu zen).

"Luke eta Lucy", haurrentzako zinea Sutegin

Igande honetan, abenduaren 7an, arratsaldeko 17:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak egunean bertan egongo dira salgai 3 eurotan. "Jim Parasite maltzuraren taldeak Texaseko rangerrak harrapatu eta gizaki niniño bihurtzen dituztenean, ranger hauek laguntzera abiatuko dira Luke eta Lucy". Hauxe, Usurbilgo Udalak antolatu eta Ziortza Elkartek lagunduko duen film emanaldiaren abiapuntua.



17:00etan hasiko da filmaren proiektzioa Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan salgai.

Olagarroa, igande honetako Tipi-Tapan

Itsas ukitua izango dute Txiriboga, Aitzaga, Xarma, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldunen



zerbitzatuko dituzten pintxoek. Eta 15:00ak aldera, zozketa. Bi sari eder askoak jokoan; 150 euroko erosketa balea Hurbilagoko saltokietan xahutzeko, eta Artzabalen bi lagunentzako afaria. Ez ahaztu zazpi tabernetako zigiluak behar direla zozketarako.

Abenduaren 11n, Duo Jaderen emanaldia

Abenduaren 11n, osteguna, iluntzeko 20:30etan Duo Jade kubatarraren emanaldia. Yanaisa Prieto Pedroso eta Maygred F. Bourricaudy Blanco bikotea Txiribogan izango dira. Lehenetik ere Usurbilen egonak dira, Santixabeletan esaterako.



Datozenak

Gabonetako txokoak Aginagako ludotekan

Aginagako Guraso Elkartearen ekimenez, txokoetara joateko aukera izango dute Aginagako gaztetxoek. **Izena emateko epea abenduaren 12an amaituko da.**

■ Abenduak 22, 23, 24, 26, 29, 30, 31, urtarriak 2, 5.

■ Orduetgia: Sarrera 9.00-10.00, irteera 13.00.

■ Prezioa haur kopuruaren arabera zehaztuko da.

■ Izena ematea: 607 484 597 (Ainhua) aginaga@eskolatxikiak.org

Odol Emailleen Eguna, Antxeta jatetxean

Abenduaren 8an ospatuko dute herriko odol emailleek, euren eguna. Antxeta jatetxean ospatuko duten bazkari baten bueltan izango da. Otordurako izen ematea abenduaren 2an itxi zuten.



Ospakizuna Antxeta jatetxean izango da. Argazkia artxibokoa da, Odol Emaille eginiko beste omenaldi batekoa.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

ABENDUAN

Hurbilago txartela erabilita...

zure erosketa

DOAKOA

izan daiteke!



Zurea izango al da hurrengoa?

hurbilag



Zorte on!

